

## Trantsizioa Armenian

2005eko ekainaren 28tik uztailaren 3ra Kieven British Councilen antolatutako *Writing Europe* kongresuan Karen Andreassianek eta Miren Erasok batera eman zuten *Transition* hitzaldiaren pasarte bat da testu hau. Bi ahotsetan egin zuten hitzaldiak azken hamarkadetan Armeniak eta Espainiako Estatuak izan duten testuinguru politikoa aurkeztu zuen, hizlarien bizilekuak biak, baina egoera baten, espazio/denbora baten berri emateaz gainera, zubi bat ezarri zuten bi errealtate soziopolitikoaren artean, praktika artistikoaren izendatzaile komunitate abiatuta.

**Trantsizio kontzeptuaz** pentsatu nuen lehen aldian nire proiektuari izena emateko, kolpetik gogora etorri zitzaidan Sarkis jatorri armeniarreko artista frantziarrak 2004an Erevan-en egindako performancea. Performancean akuarela tantak botatzen ziren ur gainera. Hasieran, akuarela tanta izpi distiratsua bat da uretan; ondoren, apurka-apurka argitasuna galduz doa, harik eta guztiz disolbatu eta uretan galtzen den arte. Horrek gogorarazi zidan estreinako gogo bizia, Armeniako egoera iraultzailearen edo trantsizio garaia hasierakoa. Egia esan, nire ikerketan erabili dudana ikuspegiak algoritmo bera errepikatzen du. Jendea ureko puntu distiratsuak dira, eta haiek jarraituta jendeak hartutako bidea jarraitzen dugu, eta horrek bat egiten du ureko akuarela tantaren algoritmoarekin. Azkenean ura arre geratzen da, uher.

Hemen dudana asmoa da aukera bat sortzea testuinguru berez agerian geratzen, testuinguru jakin batean arazo garrantzitsuei aurre egiten dien jendearen bitartez. Jende horrek esparru politiko eta soziokulturalak ordezkatzeko ditu. Niretzat oso argi egon zen hasiera-

hasieratik nori egin behar zitzaion elkarrizketa bat alde kulturalerako. Ezin gauza bera esan, ordea, esparru politikoari dagokionez; zaila da atzematen, izugarri labainkorra baita: ur nahasia, uherra. Arazoa ustekabearen konpondu zen. Kontua da topo egin nuela eskolako lagun batekin, trantsizio garaian paper garrantzitsua bete zuten alderdi erradikaletako baten kide egin zena. Arte jarduerak beti izan da malguena kultur alorrean, zuzenean lan egiten duela errealtatearekin eta haren arazoekin. Egia esan, paper garrantzitsua bete zuten trantsizio garaian, literatur esparrua alor dogmatikoena zen bitartean. Azken urteotan bakarrik, artearen egoerak eraginda, behar bada, alor horretako parte batek bizirik zegoela erakutsi zuten beste garapen maila batera pasatzean, hots, espazio diziplinarteko bat sortu eta zenbait eztabaidatarako guneak antolatzean. Elkarrizketa hauen xedea alor dogmatikoa aztertzea da, eta hartara funtzio higieniko bat betetzea.

Egoera politikoaren krisialdiak bere zigilua utzi du hirigintzan eta arkitekturetan. Iparraldeko Hiribidea izenekoaren eraikuntza hirigunean, duela urtebete edo bi eraikin zaharren artean zutik zeuden lekuan, trantsizio garai horren emaitza nabarmena da. Giza eskubideak zapaldu dira, jendea iraitzi dute bere etxeetatik dirulaguntza oso eskasa eman ondoren, aldirietan gela bakarreko apartamentua ordaintzeko justua, inbertsio atzerritarren klanen arteko istiluak, etab. Horregatik daukat pentsatuta trantsizio garaiko testuinguru armeniarrean barrena nabigatzea bakar-bakarrik jendearen, haren biografien eta esperientzien bidez.



**Iparraldeko Hiribidea** Hirigintza eta arkitekturaren inguruko ikerketa. 1924an, Alexander Tamanyan-ek, Erevaneko Hiri Plan Orokorren egileak, Iparraldeko Hiribidea eraikitzea proposatu zuen. Operako eraikina Lenin Plazarekin (gaur egun Errepublikaren Plaza) lotuko zuena. Plan hori orain ari da gauzatzen, eta "Iparraldeko" izenak zenbait arazo eta joera soziopolitiko iradokitzen dituen esanahi sinbolikoa hartu du.

#### 2005.02.04 EREVAN

##### **Gabriel Ter-Karapetyan (GTK)**

Yerevaneko Estatu Institutu Politeknikoaren Zibernetika Departamentuan graduatu zen, eta Ingeniaritza Informatikoko Institutuan lan egin du, besteak beste. Gaur egun lanik gabe dago.

**Karen Andreassian (KA)** Noiz egin zinen Nazio Determinazioarako Batasunaren (NDB) kide, eta zergatik?

**GTK** 1990ean egin nintzen NDBren kide, haren buruzagi Paruir Hairikyan atzerritik itzuli zenean, erbeste antzeko batetik. 1998ko maiatzaren 28an hasi nintzen modu aktiboago batean parte hartzen haien jardueretan; orduan antolatu zen lehen errepublika armeniar independentearen inguruan egindako aurreneko biltzarra. Garai oraindik sobietarrean gertatu zen hura,

eta jakina, ez zuen inongo babesik jaso, ezta Karabaj-eko Batzordearen aldetik ere, garai hartan mugimendu nazionalaren alderdi nagusia, gerora Armeniar Nazio Mugimenduaren antolatzea ekarriko zuena (ANM)<sup>1</sup>. Haiek uste zuten tratu egingo zuela independentziaren arazoari konponbide bat lortzeko Karabajeko mugimenduak<sup>2</sup> egindako garapen ustez arrakastatsua. Eta zergatik egin nintzen kide? Ez naiz inoiz izan alderdi-funtzionarioa, ezta nahi izan ere. Baina lagundu egin nahi nion independentziaren bandera eskuetan zeraman jendeari. Irudipena nuen jende askok ez zuela gogo handirik haietan sartzeko, beharbada ausardia faltagatik, eta ematen zuen soil-soilik zenbait errotiko aldetaren alde borrokan ari ziren gazte ausartek osatzen zutela alderdi hura. Ekintzak egiteko prest zeuden haiek, irrealak



Gabriel Ter-Karapetyan

iruditzen zitzaizkionak jende helduagoari. Nire lantokian, jendeak esan ohi zuen heziketa maila apaleko jendeak osatzen zuela alderdi hura. Gisa horretako iruzkinak ANMk bultzatzen zituen, boterearen atzetik baitzebilien. Errealitate horiek kontuan hartuta, pertsona haiengana gehiago hurbiltzea erabaki nuen: han egon nahi nuen, ni bezalako gizon batek (programazio laborategiaren burua), eta ez bakarrik jende gazteak, ordezkaritza izan zezan NDBn.

**KA** Zein da NDBren helburua?

**GTK** NDBren helburu nagusia da genozidioaren ondoren sortutako egoera<sup>3</sup> eta haren ondorioak gainditzea. Historian apur bat sakontzen hasiz gero, independentziaren aldeko lehen mugimendua 1965eko apirilaren 24an sortu zen, genozidioaren 50. urteurrenean. Eguna ospatu egin zen, jakina, ez gobernuak, bai ordea abertzale talde batek “Gure lurra bihurtu” leloarekin ibilaldi bat antolatu zuena. Manifestazioak ezustean harrapatu zituen agintariak, eta ezin izan zuten saihestu. Hurrengo urteko egun berean, atxiloketak eta indarkeria nagusitu ziren. Harrez geroztik, herritarren parte aktibo batek alderdi baten inguruan elkartzeko desiratu izan du, Nazio Alderdi Batua (NAB). Huraxe izan zen SESBko lehen erakunde klandestino. Armenian independentzia berreskuratzea zuen xede, eta NDBrentzako oinarria izan zen. NDB 1987an fundatu zen, Paruir Hairikyan espetxetik irten eta Gorbachovengana jo zuenean

alderdi bat sortu nahi zuela jakinarazteko (perestroika, glasnot). Erantzunik jaso ez bazuen ere, alderdia fundatu egin zen, eta, are garrantzitsuago, NDBk erreferendum kontzeptua hartu zuen, nazioak autodeterminatzeko duen eskubidea oinarri hartuta, independentzia lortzeko bide bakarra zelakoan. Ordu arte, NABeko buruzagiek erabaki gabe zeukatzen independentzia nola eskuratu.

**KA** Zein dira NDBren egungo helburuak?

**GTK** Gaur egungo helburuei dagokionez, esan liteke helburu nagusia, alegia, Armenia independentea, lortu egin dela. Alabaina, hori bezain garrantzitsua zen Armenia aske bat lortzea, eta gaur egun ez dago halakorik. Armenia independente<sup>4</sup> bat sortzeak ez zuen esan nahi kanpoko diktadura ezeztatzea eta haren ordez barne sistema diktatoriala ezartzea, baina horixe daukagu gaur egun gure herrialdean. Askatasunari dagokionez, zenbait kasutan gainbehera bat sumatzen da. Gainbehera hura ez zen ezustekoa izan. Independentziaren hasiera-hasieratik, botere transferentzia bat izan zen Armenian. Ez zen hauteskunderik egin, hauteskunde simulakro bat baizik. Mosku ahalegindu zen boterea berari komeni zitzaion pertsoneri pasatzen. Gauza jakina da garai hartan lehen ministro izan zenak, Vazgen Manookyan, 1991n dimisioa eman ondoren, argi eta garbi jakinarazi zuela KGBren buru Krjuchkovek aginduak eman zituela gauzak egin zitezkeen Paruir Hairikyanek agintea lortu ez zezan moduan. Bestela esanda, Moskuk ez zituen lider nazionalak ikusi nahi estatu independenteen buruan; osterantzean, prozesuak azkarragoak eta eraginkorragoak izango ziren.

**KA** Zer antzekotasun eta zer desberdintasun izan ziren ondoko hauteskunderiekin?

**GTK** Antzekotasuna izan zen hauteskunde emaitzak aurretik erabakita zeudela; agintariak saiakera bat egin zuten hauteskunde emaitzak alde aurretik adosteko eta haiek tratatzeko. Hau da, agintea erreproduzitu egin zen. 1990eko hauteskundeetan, artean lege sobietar akastunak zeuden indarrean; hala ere, hauteskundeak garbi samarrak izan ziren, eta lege urratze gutxi gertatu zen. Ondoren, legeak hobetu egin ziren, eta hauteskunde berrietarako arautegiak gero eta hobekiago egin ziren. Eta faltsutzearen

teknologiak ere faltsutu egin ziren.

Zergatik? Zein zen arrazoia?

Erreproduzio bakoitzaren ondoren, aginte ofiziala txirikordatu egin da klan egiturekin, eta zenbait baliabide ekonomiko eskuratu; horrekin batera, gizabanako kriminal batzuk ere agertu dira. Hauteskunde garaia iritsi zenean, agintariak beldur ziren agintea galdu ondoren, batez ere hauteskundeak garbiak baldin baziren, bozketetatik ateratako agintariek ez ote zuten dena agerian utziko. Orduan, eta zeukaten agintea ez galtzarren, hurrengo hauteskundeak antolatuko zituzten agintea gordetzeko edo beren “jende/klan”ari pasatzeko moduan.

## 2005.02.07 EREVAN

**Nazareth Karoyan (NK)**, arte kritikaria eta komisarioa.

**KA** Zein dituzu kezka nagusiak gaur egun?


**NK** Nire interes estrategiko nagusia da diskurtsoen eta egituren arteko harremana, eta nire ustezko interes taktikoak komunikazio egiturak dira, kanpoko zein barruko komunikazio motei dagozkienak. Armeniako egungo arte egoera zehaztugabe jo liteke. Ez dago inongo erlaziorik berez diskurtsoaren planoen artean. Alegia, gaur egun arte diskurtsoak hiru maila ditu. Lehena barne maila da, artelanaren mailan dagoena; bigarrena kanpotik datorrena da, hau da, arte esparruaren barruan diharduena, artearen maila publikoaren inguruko diskurtsoa da; eta hirugarrena artearen eta beste jarduera sozialetan eta bestelakoen arteko diskurtsoa da. Arte esparru hau zehaztugabea da, diskretua, eta bi errealitate historikok erabakitzen dute: arte egoera azpigaratua eta beste zenbait errealitate, gaur egun ere gailentzen diren ezaugarri soziopolitikoek-edo baldintzatuak. Horren ondorioz, gaur egungo arte alorra, berez, kultur fenomeno edo esparrua den aldetik, ikusezina da. Ikusezintasun hori diskurtsoaren barne eta kanpo esparruak bat ez etortzearen ondorioa da; alegia, gogo artistiko sortzaileak maila batean dihardu, eta arte aurkezpenen aukerak beste nonbait agertzen dira.

**KA** Deskribatu hitz gutxi batzuetan egungo arte egoeraren jatorria.

**NK** Gogoan izango duzu adierazpen bat egin nuela Genevan egungo arte egoeraren jatorriaz: gaur egungo arte egoera artisten jardueren emaitza gisa sortu zen, arte egoera artelanen ez-tandak sortuko balu bezala. Artistak berak ere beren lanaren bakardadetik irteten saiatu dira, eta arte esparru bat sortzen, haien ustez esparru hori beharrezko baldintza baita jendaurrean beren lana aurkezteko. Beste aldetik, egoera hori ezin izan da inoiz sendo finkatu, egonkortu; eta artistek beraiek, jada hasiak zenbait aurkezpen proiektutan, eragin zuten beren arteko deskonexioa, disoluzioa. Bestela esanda, beren sorkaria suntsitu zuten. Ezin zitekeen besterik gertatu, azpiegitura haiei lotutako helburuak iristea ezinezkoa zitzaien-eta. Beste arrazoi bat Armenian dauden kultur ezaugarri historiko tradizionalak izan litezke.

**KA** Zer inbertsio egin ziren gaur egungo artean?

**NK** Gaur egungo arte alorra gauzatu da atzerriko inbertsioei esker, batez ere diaspora armeniarren aldetik. Diasporak egindako inbertsioak oso zehatzak dira. Diasporako *intelligentsiaren* ordezkariak jabetzen ziren artearen garrantziaz, gaur egungo arte egoera irudikatzen bidea den aldetik. Baina inbertsio haiek oso modu berezian egiten ziren. Diasporaren ordezkariak ez zituzten kontuan hartu inbertsio



Nazareth Karoyan



zehatz hura egin aurretik zeuden tokiko ezaugarriak espazioari, testuinguruari eta garapen historikoari dagokienez. Beraz, inbertsio horien bidez, gauzatu egin dute beren ametsa, baina hori sarri askotan tokiko interes artistikoen aurka joan daiteke, espazio sakratu, baliotsutik haratago joan nahi dutenen interesen aurka. Haratago joate horrek ekartzen du harremanetan hasia testuinguruarekin, arte egoeratik haratago, armeniar mugetatik haratagoko gure lagunekin (hori ez zaio diasporari oso ideia ona iruditzen, arrazoi historiko zehatzak direla medio). Hortaz, gure proiektu sakratuaren oskolean bakartuta bizi behar dugu. Aldaketa bat gertatzen da diskurtsoan eta egituran. Orain diskurtso eta interferentzia desberdinak sakabanatuta daude. Sobiet osteko armeniar gizarteak, antza denez, ez dauka izen hori merezi duen arte testuingururik. Artista oso interesgarriak daude, proiektu oso interesgarriak, baina ez daukate inolako eraginik bizitza sozialaren alderdi mental, espiritual eta kulturaletan, eta bakartuta daude, beren proiektuen baitan harrapatuta.

#### 2005.02.05 EREVAN


**Violet Grigoryan (VG)**, poeta, *Bnagir*: [www.bnagir.am](http://www.bnagir.am) literatur aldizkariaren kofundatzailea.

**KA** Zein izan ziren aldizkaria sortzeko arrazoiak?

**VG** Neure lan pertsonalak, garai hartan zeuden egunkari eta aldizkarietan argitaratua bera, bazterrak nahasi zituen, zenbaitetan irain pertsonaletara iristeraino. Nik eztabaidarako gune bat sortu nahi nuen gauza serioez hitz egiteko. Baina elkarriketa mugatuta zegoen baimenduta dagoenaren eta ez dagoenaren artera (adibidez hitz bat, edo gai sakratu bat), ez zen haratago iristen. Nik esandakoaren aurrean erantzuna jasoko nuen lekuan egon nahi nuen, hark eztabaidatzeko aukerak emango baitzituen. Halako lekurik ez zen existitzen. Beste arazorik ere bazegoen. Gaur egun, bideo eta audio produkzioak presio ikaragarria egiten dute hizkuntzaren gainean. Hizkuntza krisialdi bat pasatzen ari da. Garai latzak dira literatura egiteko, diotenez. Ez dut sekula sinetsi izan hori. Sinesten dut, hori bai, hizkuntzak funtzio berebizikoa betetzen duela. Sinetsita egote horrek eta neure arazo pertsonalak bultzatu ninduten aldizkaria fundatzera.

**KA** Zer baliabide ditu aldizkariak?

**VG** Askatasunari dagozkion arazoez gain, badira beste zenbait ere, Armeniaren mendetasunari lotuta daudenak. Vahram-ekin batera, mendetasun guztiak (finantza alorreko mendetasunak barne) ahal zen neurrien murriztea erabaki genuen, baita laborategi bat sortzea ere, idazleentzat eta guk bezala esateko zerbait daukan jendearentzat. Geure finantzabideetan oinarrituta, literatur aldizkaria sortu genuen, zeinak guretzat printzipio nolabait berriak zirenak enuntziatzen baitzituen. Aldizkariak egiaztatu egin du hitzaren balioa askatasun horren bitartez.



Violet Grigoryan

2005.02.06 EREVAN

**Arman Grigoryan (AG)**, artista, idazlea, *Bnagiren* argitaratutako "Gora Iraultza" eleberraren egilea.

**KA** Aldatu egin al da gaur egungo artearen inguruan hasieran zenuen jarrera?

**AG** Hari eusten saiatzen naiz. Nire ideia zen herrialde totalitario batean bizi ginenez, arteak libratu egin behar duela artista baimenduengandik, Artisten Sindikatukoak zein Idazleen Sindikatukoak izan, ez baitago alderik. Nire ustez, lan sortzailea edonork egin dezake, paper emantzipatzailea dauka. *The Third Floor* ideia horretan oinarritzen zen. Uste dut gaur egun ere egia dela.

**KA** Zergatik idatzi zenuen eleberririk bat?

**AG** *Bnagiren* zirkulu txikian irakurri ahal izateko bakarrik. Sarri biltzen ginen han hitz egitera, eta nik maiz kritikitzen nituen idazleak literatura errusiarraren halako eragina zutelako. Nire argudioa zera da: norengandik nahi genuen independente izan? Errusiarrangandik. Hala izanda, arteak ere haiengandik independizatu beharko luke. Horregatik hartu nuen nire lehen eleberrirako gaia independentziaren lehen uneak, 1917ko iraultzarekin batera. Iraultza hark autodeterminazioa lortzeko aukera eman zien nazioei. Baina errusiarrak zerbait gertatzen zaie, tsar irudiari lotuta dagoena, batez ere Nikolas II.ari. Errusiarrak errudun sentimendua dute hilketaren inguruan. Beharbada horregatik adierazten dute etengabe monarkia itzultzeko desira. Konpromisoaren beharra esplikatu izan balitzaie aristokratei, ez zuten tsarra hilko. Eta nire eleberrian erakutsi nahi nuen gizakiaren baitako esklaboa hil beharrean, gizakiaren baitako aristokrata hil beharko litzatekeela, biak, esklaboa eta aristokrata, gauza bera direlakoan. Logika hori gogoratu beharko litzateke iraultzaren ostean etorriko zen mundu berriaren atalasean. Nik pentsatzen nituen aldaketa eta aukerak Lehen Mundu Gerraren ondoren gerta zitezkeen, eta Bigarren Mundu Gerraren tragedia saihestuko zuten. Nire eleberririk gai hori jorratzen du, gaingiroki.



Arman Grigoryan

Eleberraren zati bat:

## GORA IRAULTZA

*Vladimir Ilich ate ondoan agertu zen. Urdu ematen zuen. Nik ez nekien Sovnarkom-ak erabakirik hartu zuen edo ez. Baina ziur nengoen ez zela beranduegi. Zerbait egin zitezkeen. Ukondoak erabilia bidea ireki nuen korridorean zegoen jendearen artean Leninengana iritsi arte. Bilera aretora itzultzeko zorian zegoen orduan.*

*-Vladimir Ilich, eten ezazu arazoaren inguruko eztabaida gutxienez astebetez. Gauza garrantzitsu bat esan behar dizut -azken bitzak xuxurlatu egin nituen, inork aditu ez zitzaiz. Lenin isilik egon zen puska batean, eta gero galdetu zidan:*

*-Ezer gertatu al da?*

*-Sineitsita nago oraindik ez dugula aukera onena aztertu.*

*-Zer aukera?*

*-Tsarra boltxebikeen alde egiten baldin badu, egoera erabat aldatuko da.*

*Mundua txundituta geratuko da. Gerra zibila amaitu egingo da. Eta Munduko Iraultzak aurrera egin dezan aukera bat izango da.*

*-Nikolas marxista egin da, ala? -xuxurlatu zidan Leninek, isekari eta barreka.*

*-Antola nezake. Nikolas konbentzi nezake. Vladimir Ilich, erabili zure eragina eta barremanak -esan nion, bizkor-bizkor; gogoberotuta nengoen eta gero eta ozenago ari nintzen bizketan-. Ez dugu zorigaitzoko butsegiterik egin*

*behar. Exekuzioak ez du arazoa konponduko. Ez dezagun berriro egin frantziarren eta ingelesen hutsegitea.*

*Bilera aretoan sartu ginen, Leninek azkar itxi zuen atea eta, Sovnarkomeko kideei begiratu zien.*

*-Itxaron egin behar dugu erabakia hartzeko -esan zuen, eta niri begira jarraitu-: Arman kamarada irtenbide ustekabeko batekin etorri zaigu.*

*Interesgarria dirudi, fantastiko samarra izan arren.*

**KAREN ANDREASSIAN** artista da.

Erevan bizi da, Armenian.

Voghchaberd izeneko haren proiektuaren inguruko informazioa lortzeko:

<http://www.voghchaberd.am>

[www.format.am/](http://www.format.am/)

## OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

1 Karabajeko herriak autodeterminazioaren aldeko borroka babesten zuen nazio mugimendu indartsu baten buruan ibili zen erakunde hori. Gero Karabajeko Errepublika Independentean agintzen duen alderdi bihurtu zen.

2 1921ean, Stalinekin hala erabakita, Nagorno-Karabaj (Artsaj eskualde historikoki armeniarra) indarrez elkartu zuten Azerbaijanekin. 1988an eskualdeak bozketa bidez erabaki zuen Azerbaijanetik bereizi eta Armeniarekin bat egitea.

3 Turkia Otomandarrak gauzatu zuen armeniarren genozidioa 1914 eta 1918 artean. Milioi eta erdi edo bi milioi armeniar hil zituzten, eta milaka eta milaka abiatu ziren atzerrira. Horren ondorioz sortu zen diaspora armeniarren nozioa. Komunitate indartsuenak AEBn, Frantzia, Australia eta Erresuma Batuan daude.

4 1991n, Armeniak independentzia lortu zuen erreferendum baten bitartez.